

LAN-KONTRATUA

• ¿ZEIN DA LAN EGITEKO GUTXIENEO ADINA?

1. Epai judizial bidez ezgaitu deklaratu ez diren pertsona adinez nagusi guztiak (18 urtetik gorakoak).
2. Lan egiteko gutxieneko adina 16 urtekoa da, ikuskizun publikoetako artistentzat izan ezik. Kasu hauetan, gurasoen edo tutorearen aldez aurreko baimena behar da (udaletxean ematen dute baimena).
3. Legeak ondokoa debekutzen die 18 urtetik beherakoei: Gaueko lanak, aparteko orduak eta beren osasunerako zein giza eta lanbide prestakuntzarako osasunkaitz, kaltegarri edo arriskutsutzat hartzen diren jarduerak egitea.
4. Legeak lan-kontratua atzeritartasun-legeriari jarraiki egiteko aukera ematen die atzeritarrei.
5. Sexuagatiko diskriminaziorik eza. Konstituzioak eta lan-arloko legeek emakumeen diskriminazioa debekutzen dute egiten duten lana gizonezkoen lanaren parekoa denean (lan berdinari ordainsari berdina eta lan-baldintza berdinak dagozkie: lanbide-sustapena eta abar).

• LAN-KONTRATUAREN EDUKIA

Idatzizko lan-kontratu guztiek, ondoko datuak bildu behar dituzte:

- kontratugileen (enpresariaren eta langilearen) izenak eta identifikazio zehatza;
- indarreko sarrera-data;
- kontratuaren iraupena. Berariaz jasota ez badago, kontratua mugagabea izango da;
- lanbide-kategoria, zereginak, funtzioak, lantokia eta lanpostua;
- lanaldia, ordutegia eta oporrak.
- ordainsaria eta ordaintzeko modua;
- hitzarmen kolektibo aplikagarria;
- probaldia;
- lanbide prestakuntzari eta sustapenari buruzko akordioak;



- klausula partikularrak eta apartekoak (adibidez, legezko mugen barruan aparteko orduak egiteari buruzkoak).

• LAN-KONTRATU MUGAGABEA

Lan-kontratu “finko” deitzen dioguna da. Lanaldi osokoa edo egun-zatirakoa izan daiteke.

Hitzezko kontratuak mugagabetzat hartzen dira.

• ALDI BATERAKO EDO IRAUPEN JAKINEKO LAN-KONTRATUA

1. Modalitateak

a) Obra-kontratuak edo zerbitzu jakineko kontratuak: obra edo zerbitzua amaitu arteko iraupena izango du.

b) Behin-behineko kontratuak: produkzio-zirkunstantzien araberakoa. Gehieneko iraupena: 6 hilabete.

c) Bitarteko kontratuak: lanpostua erreserbatzeko eskubidea duten enpresako langileak ordezkatzeko.

d) Aldi baterako kontratuak: enplegua sustatzeko eta enplegurik gabeko kolektibo jakin batzuetan enplegua eskaintzeko neurri gisa.

e) Egun-zatirako kontratuak: lanaldia lan-sektorean ohikoa dena baino laburragoa izango da.

f) Txanda-kontratuak: langile finkoa erretiro partzialeko egoera batera igarotzen den kasurako.

g) Kontratazio mugagabea sustatzeko kontratuak:

h) Praktikako kontratuak: lanbide-jardunerako gaitzen duten unibertsitateko, batxilergoko edo lanbide-heziketako tituluak edota bestelako lan-titulazioak edo akademikoak dituztenentzat.

Langileak titulazioa lortu eta hurrengo 4 urteen buruan egin behar dira.

i) Prestakuntzarako kontratuak: langileak ogibide zehatz bat garatzeko beharrezkoa duen prestakuntza integrala (teorikoa eta praktikoa) lor dezan. Langilearen adina: 16 urtetik 21era bitartean (legeak adierazitako salbuespenetan izan ezik). Titulazio akademikorik eta lanbide-prestakuntzarik ez dutenentzat.

Forma de los contratos de duración determinada

2. Iraupen jakineko kontratuen forma

Idatziz eta eredu ofizialean formalizatzea exijitzen da.

Kontrata INEMen erregistratu behar da baliozkoa izan dadin.



3. Luzapenak

Aldi baterako kontratuak luzatu ahal izango dira kontratuan aurreikusitako gehieneko iraupen batez (modalitatearen arabera).

- **ALDI BATERAKO LANEKO ENPRESAK (ABLE)**

Aldi baterako laneko enpresen helburua beste enpresa erabiltzaile batzuk aldi baterako lan-kontratuko langilez hornitzea da.

Enpresa hauen berezitasuna zera da, hots, kontratua ABLEaren (enpresariaren) eta lana beste enpresa batean egiten duen langilearen artean egiten dela.

Langilearen eta ABLEaren arteko lan-kontratua idatzizkoa izango da beti eta iraupen mugagabea edo aldi baterakoa izan dezake.

Legeak, kasu jakin batzuetan, enpresa erabiltzaileak langilez hornitzea debekatuko die ABLEei (greban dauden langileak ordezkatzeko edo lan bereziki arriskutsuak egiteko hartzen diren kasuetan, adibide).

- **HITZARMEN KOLEKTIBOAK (lan-hitzarmenak ikusteko gainean klickatu)**

http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r45-19108/eu/contenidos/informacion/5229/eu_2287/eu_12158.html

LAN JARDUNALDIA

- **Gehieneko iraupena:**

- 40 orduko benetako lana astero (urtero kontatuko dira)
- Eguneko 8 ordu gehienez ere.
- Lanaldi baten eta hurrengoaren artean 12 atseden-ordu jarraitu izango dira.

Gaueko 10etatik goizeko 6etarako lan-orduak gaueko ordu gisa kontatuko dira eta oinarritzko soldatari %25 gehituta ordainduko dira (lana gauekotzat hartzen denean eta berariazko ordainsari bat itundu denean izan ezik).

- **Aparteko orduak:**





Urteko gehieneko lanaldiaz kanpoko lan-orduak dira.

Legez baimendutako gehienekoa, urteko 80 ordukoa da (40 orduko lanaldi osoaren kasuan).

Hitzarmen kolektiboan edo kontratu indibidualean xedatutakoari jarraiki ordainduko dira.

Aparteko orduak egitea borondatezkoa izango da langilearentzat. 18 urtetik beherakoek ezin dute aparteko ordurik egin.

ITURRIA: <http://www.justizia.net>

